1. zenbakia
1999ko abuztua
225 pta

URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

uk

Julio Ibarra

Bera aurkeztea soberan dago, bera da-eta aurkezpen lanetan aditua. Izan ere, aspaldian dabil Euskal Telebistako gaueko albistegiak zuzentzen eta aurkezten.

Ez galdu aukera hau. Egin zaitez harpidedun!

hauteskundeak • juan ugarte • jazzaldia

Informazio gehiago telefono honetan

901 50 55 55*

* Telefono zenbaki hau 1999ko maiatzaren 3tik ekainaren 15era erabil daiteke.

Kalitateko Euskal Labela duen abelgorri okela **osasuntsu, zaporetsu eta naturala.**

EUSKO LABEL

KALITATEA

EUROPAKO ELKARTEAREN PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUA

Labeldun okelen salmentan duten espezializazio maila handia dela eta, ikur honekin (▶) adierazitako Harategi Baimenduek ARTISAU ERAKO HARATEGI ESPEZIALIZATUEN sailkapena dute Kalitateko Eusko Labela duten produktuetan

BAIMENDUTAKO HARATEGIA
KALITATEAREN EUSKO LABELA
duen hemengo Abelgorri-Okelaren salmentarako

ERANDIO

▶ *CARNICERÍA LUÍS ÁNGEL BILBAO*
Tartanga, 5

CARNICERÍA JON
Plaza San Agustín, 2

CARNICERÍA JOSEBA
Mercado de Mezo Pto., 10 (Astrabudua)

CARNICERÍA JAVI
Mercado de Mezo Pto., 16 (Astrabudua)

GETXO

▶ *CARNICERÍA ESTEBAN*
Ganeta, 3

▶ *CARNICERÍA SANTI*
Iturgitxi, 18 (Algorta)

CARNICERÍA HNOS. URRUTIA
Erribitarte, 11 (Las Arenas)

▶ *CARNICERÍA MARDARAS*
Plaza Mercado (Algorta)

OKA CARNES Y EMBUTIDOS SELECTO
Mercedes, 25 (Las Arenas)

▶ *CARNICERÍA JOSE LUÍS*
Bizkerre S/N (Fadura)

UNIDUO SELECCIÓN
Mayor, 2 (Las Arenas)

CARNICERÍA JUAN LUÍS MADARIAGA
Plaza Mercado (Algorta)

CARNICERÍA GABIRIA HARATEGIA
Andikoetxe, 22 B (Algorta)

CARNICERÍA CHARCUTERÍA LOIUKO
Aldapas, 4 (Algorta)

CARNICERÍA GALEA
Telletxe, 18 (Algorta)

CARNICERÍA CHARCUTERÍA SEBAS
Santa Eugenia, 23 (Romo)

CARNICERÍA CHARCUTERÍA BENGOA
Bidezabal, 15 (Algorta)

CARNICERÍA OSCAR Y ANA
Lope de Vega, 9 (Romo)

LEIOA

EROSKI LEIOA
Carretera La Avanzada S/N

GORLIZ

CARNICERÍA HNOS. MADARIAGA
Itxasbide, 12

PLENTZIA

CARNICERÍA MADARIAGA
Eleiz Enparantza, 7

CARNICERÍA-CHARCUTERÍA IÑIGO
Arraun, 1

SOPELANA

CARNICERÍA LANDEA
Sabino Arana, 12

URDULIZ

CARNICERÍA MARIBÍ
Lapurdi, 1

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

IRUDIA: J. A.

irudia

Suaren gainean dantzan

Udako solstizioa dela-eta, ohiturari jarraiki, hainbat ospakizun egiten dira San Joan egunaren bezperan. Ezagunenak San Joan suak dira, eta egun berarekin lotutako sinesmen eta ohitura asko, kristautasunaren aurreko festekin eta solstizio-gurtzearekin lotuta daude. Euskal Herrian herriz herri sua pizteko gaiak eta modua aldatu egiten dira. Esaterako, Saran, sasiz, adaskaz eta aurreko urteko hazko-igandean bedeinkatutako erramuz egiten da. Zegaman, zahagi bat pizten da sutan eta gero makila batetik zintzilik mutiko batek herri osoan zehar eramaten du. Gaur egun, herri eta hirietako auzo askotan balio ez duten altzari, egur-puska, eta abarrez pila bat egin eta sua ematen zaio. San Joan egunarekin lotutako beste ohitura bat larruazaleko gaixotasunak sendatu edo arintzearren, iturri jakin bateko ura edatea edo haren uraz garbitzea, edota San Joan eguneko goizean ihintzak bustitako belardietan ortozik ibiltzea. Bestetik, egun horretan santuari eskainitako landare eta fruituak (lizar-adarrak, artoa...) atarian zintzilikatzen dira. Herri-sinesmenaren arabera, San Joan bezperako gaua jeinuen gaua ere bada: mendi batzuetan (Sollube, hemen inguruan) kutxatxo ireki bat utziz gero, jeinu horiek (galtzagorriak, mamuak...) harrapa ei daitezke. Biharamunean jeinu horiek kutxatxoaren nagusiari bere zerbitzu magikoak eskainiko dizkiote.■

San Jorge eta herensugea



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

ARGITARATZAILEA: Uribe Kostako Aldizkaria **HELBIBIDEA:** Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO / e-mail: aldizkaria@euskalnet.net / Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37 **ZUZENDARIA:** Jokin Aspuru **ERREDAKZIOA:** Esti Ezkerra, Zaloa Mendez, Verónica Muñoz, Andoni Llosa, Konrado Mugerza **ARGAZKIAK:** Mikel Martinez **DISEINUA:** JOTA•GRAFIK , Jokin Aspuru **TESTUEN ORRAZKETA:** Joseba Butron **INFOGRAFIA:** Guillermo Almagia **MARRAZKILARIA:** Gorka Vázquez **ADMINISTRAZIOA:** Konrado Mugerza **PUBLIZITATEA:** Amaia Bilbao **KOLABORATZAILEAK:** Bittor Egurrola, Jokin de Pedro, José Ignacio Lobo, Josu Zubiaur, Sabin Ugarte, Iker Lores, Itsaso Arana, Aitor Elizegi, Algortako Bertsolari Eskola **ALE KOPURUA:** 5.000 **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF

Barrukoa Taberna
Telletxe 5
ALGORTA

SANTANA KIOSKOA
Prentsa eta aldizkariak
Santana kalea, Amaiarekin bat
AREETA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA EZARKETAK
T: 430 53 46
HIRURAK
Sarrikobaso 15 48990 ALGORTA

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarreriak
Orduña Mendatea 1 T: 430 22 13 GETXO
Telletxe 13 T: 460 02 88 ALGORTA

Errotalde ileapaindegia
HARTU TXANDA TELEFONOZ!!
T: 460 38 90
Errotalde 18A
ANDRA MARI GETXO

Zurikaldai
JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 48
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

e-mail elkarrizketa

Unai Markaida, biologo bat Mexiko-n

Ensenada

Atzera | Aurrera | Etxera | Joso | Irudiak | Ireki | Inprimatu | Bilatu | Stop

Helbidea: umarcaid@oceanos.cicese.mx

Jendea | Interesgarria | Bilatu | Internet | e-mail | Software

- Unai Markaida
- 31 urte
- Biologoa
- Mexiko

"Hemengo lasaitasunak, ez dauka preziorik"

Non bizi zara Unai?
Behe Kaliforniako penintsularen iparraldean, Mexikon. Pazifikoaren kostaldean, EEBBetatik 100 km-tara. Ensenadatik 10 km-tara dagoen herri txiki eta lasai batean bizi naiz, El Sauzal de Rodríguez, hondartzaren parean. Duela zazpi urte etorri nintzen, bi urte baino gehiago geratuko ez nintzela zin egin nuen, baina...

Zertan zabiltza hor?
Ikerketa zentro batean nabil, "Centro de Investigación Científica y de Educación Superior de Ensenada" (CICESE), ekologiako departamenduan. Lehenengo bi urteetan ezpatarrainaren tripak aztertzen ibili nintzen. Gero doktoradutzarako marrazoekin hasi nintzen lanean, baina txipiroi erraldoia (20 kg eta 1'5 metrotako animaliak) deritzoten arrantza hasia zen Kaliforniako Golkoan eta ez zebilen inor hauek aztertzen. Eta haiekin lan egitera pasatu nintzen: adina, birsorketa, dieta... Txipiroi hau azken urteotan Mexikon arrantza garrantzitsuenetarikoa bihurtu da eta interes handia sortu da horren inguruan. Momentuz ikertzeko gauza asko daude eta zaila da jakitea non eta noiz egongo den txipiroi erraldoia datorren sasoian. Txipiroia bera arrantzatzen den lekua, Kaliforniako Golkoa, paradisua da eta hango arrantzaleekin lan egitea itzelezko esperientzia. Abenturarik ez da falta.

Hor luzaroan geratzeko asmoa daukazu?
Aspalditik neukan pentsatua doktoradutza bukatu eta hemen ez bazen Ameriketako beste herrialderen batean bizitzera geratuko nintzela. Baina azkenaldi honetan argiago daukat hemen Mexikon geratzea. Txipiroien kontua dela eta agian zientzi ikertzailea edo horren antzeko lana topatzeari ekingo diot.

Azaldu, Unai, zer-nolako giroa dagoen leku horretan, zelakoa den jendea?
Nahiko surrealista. Oro har, jendea gurean baino lasaiagoa da, presaka ibili gabe eta lanerako jarrera handirik gabe. Hasieran etsigarria izan arren, urteen poderioz ohitu eta euren berdina bihurtzen zara. Harrigarria bada ere, hemengo nortasuna horkoa bezalakoa da, iparraldeko jendeak zintzotzat eta eskuzaballtzat dauka bere burua, eta erdialdeko Mexiko hiriburuko jendea mesprezatzen du. EEBBetako muga gertu dagoela dela-eta Mexiko guztitik jende asko dator hona lan bila. Herriak, Mexiko iparraldekoak bezala, EEBBetako herrien itxura dauka: kale zabalak eta pisu bateko etxeak. Distantziak oso luzeak dira eta ia derrigorrez autoa behar duzu mugitzeko.

Horko gauzetatik, zer da gehien gustatzen zaizuna eta zer gutxien?
Hemengo lasaitasuna, lanerako errespontsabilitate gutxi eta presa gabe bizitzeak ez du preziorik. Eguraldia primerakoa da, euri gutxi eta ia egun gehienak eguzkitsuak dira. Garagardoa eta marihuana primerakoa eta merkeak dira. Polizia sobornatu daiteke, kotxea mozkorrik gidatzea ez da horren larria, oraingoz behintzat. Herritarren pasotismo politikoa gustukoa dut, batez ere hain politizatuta dagoen gizarte batetik etorrita.

Kanpoan bizi izanda, zeren falta sentitzen duzu?
Marmitakoa, idi probak eta amodioren bat. Orain, serioski, horko kaleko giroa faltan sentitzen da, hemen ez dago lagunak tabernan edota kafetegian topatzerik. Horko jaiak bezalakorik ez dago. Adibidez, hemen ezin da kalean alkohola edan. *Tripiak* ere asko botazen ditut faltan, sudurrean Ibaizabal ibaiaren hatsa eta *speed*-aren zapore garratzaren mixtura. Gau zoro asko izan dira hor... Honez gain, mendiak eta paisaia berdeak, bai, hemengo bertako natura nahiko pobrea da, Behe Kaliforniako basamortua zoragarria izan arren. Ah, eta janaria, hemengoa gustukoa dut, baina Euskal Herrikoak ez dauka parekorik.

Noiz daukazu etortzeko asmoa?
Ia datorren milurtean elkar ikusten dugun, Nostradamus-en profeziak betetzen ez badira behintzat. Udan gustura joango nintzateke. Ea zuek hona zatozten, *txingaos!* Agur beroa hemendik hortik dabiltzan *konpadre* guztiei. *Qui hubole, gueyes!*

TESTUA: JOKIN ASPURU

JOSÉ IGNACIO LOBO

ikimilikiliklik



Edorta Hormaza

Leioako kaleak garbitzeaz arduratzen da 41 urteko leioar hau. Duela hamalau ekin zion lanbide honi eta harrez gero, egunero ikus dezakegu Luis Bilbao eta Kandelazubieta kaleetan zehar lanean. Bere ogibidea gustukoa du baina are gustukoagoa bere motorraren gainean ibiltzea.

OTI ETXERA!

Iñigo Otazua *Oti*, Getxoko preso politikoa, 1994 urtean atxilotu zuten. Harrezkero, Carabanchel eta Alcala-Meco espetxeetan izan ondoren, une honetan Cuencako kartzelan dago, bere etxetik 600 kilometrotara. Bere amak, Milagros Urrestik, ezin du semea ikusi elbarria delako. Eta 1994 urtean Oti atxilotu zutenetik behin bakarrik ikusi ahal izan du, 1995eko martxoan. Hala ere, bidaiaren ondorioz ospitalean ingresatu egin behar izan zuten.

Espetxeetako legediak dioenez preso guztiek dute bere ama ikusteko eskubidea (art. 51 Ley General Penitenciaria). Areago, espetxea behartuta dago ama gaixorik duen preso guztiak etxera ekartzeko, ama ikusi ahal izateko (art. 151.1 Reglamento Penitenciario). Egoera honen aurrean Getxoko Udalak *Oti* Basaurira ekartzea eskatu eta hainbat gestio egiteko akordioa hartu zuen martxoaren 26ko Udalbatzarrean, EAJ-PNV, EA, PSE-EE, IU-EB eta HB alderdien sostenguarekin. PP alderdia abstenitu egin zen.

Hau ez da nahikoa izan. Maiatzaren hasieran berriro ukatu diote Otiri otsailean Basaurira etortzeko egindako azken eskaera. Giza eskubide oinarrizkoenak ukatu egiten dizkie Espainiako gobernuak euskal preso politikoei eta euren senideei. Bai ama ikusteko eskubidea, baina baita ere amak semea ikusteko duen eskubidea.

Espainiako Parlamentuak berak espetxe politika malguago eta gizakorragoa eskatu zuen azaroaren 10ean. Bederatzi hilabete pasatu dira eta *Oti*-ren egoera, euskal preso politiko gehienena bezala, bere hartan dira.

OTI BASAURIRA ORAIN
PLATAFORMA

SENDOA-K IOSUNE URIARTERI

UK-ren lehenbiziko alean, Iosune Uriarteri (Metroko bezeroaren arretarako burua) eginiko elkarrizketa irakurri dugu; *"Maidagani buruz zerbait esaterik baduzu?"* galdetu diote. Harrigarria bada ere, bere erantzuna (eta iritzia) guztiz oker dago.

SENDOA-k horri zera erantzun behar dio:

Lehenik eta behin I. Uriartek, ez du galdera erantzuten, zeren eta galderan ez baita Getxoko geltokia aipatzen baizik eta handik oso hurbil, trenbide sarean, dagoen pasabide ilegala (Maidagan). Pasabide hau 1962 geroztik ilegala da eta Metroko lanak egin baino lehen TRENAREN LURRAZPIRATZEA onartu zen Getxoko Udalean. Metroko lanak hasi zirenean eta bai Algortan bai Areetan trena lurperatu eta gero, Getxoko Maidaganeko pasabideari ekingo ziotela uste genuen guztiok. Baina guztion harridurarako, ez zuten ezer egin. Beraz legea bete gabe segitu zuten, gainera herrian bertan goi eta behe mailako biztanleak daudela frogatu zuten (Algortan eta Areetan lurperatu bai, eta Getxon ez, zergatik?).

Are gehiago, erantzuna ematean, Iosunek zera dio, zer esanik ez daukala, baina jarraian "arrazoi" batzuk botatzen hasten da: *"geltokia ezin zen teknikoki mantendu..."*, *"Bidezabalen biztanleri handiago dago"*. SENDOA-n hainbestetan azaldu duenez, ez gaude Bidezabalgo geltokiaren kontra, baizik eta Getxon zegoenaren alde. Gainera, gaur egun (96-2-23tik) mozio bat dago onartuta udalean Getxoko geltokia "ahalik eta azkarren" birjartzearen alde.

Gainera "ezintasun teknikoak" guztiz ezeztatuta daude, Getxon 90 metro zuzen baino gehiago baitaude, Negurin berriz, 78 metro eskas. Biztanle kopurua ez da arrazoia 104 urtez zerbitzua eman duen geltokia kentzeko, are gehiago, metro baten ezaugarritako bat geltokien arteko hurbiltasuna da; gogoratu behar dugu Bidezabal eta Berango artean kilometro bi daudela geltoki barik. Kasu honetan gainera berezitasun bat dago; biztanle hazkundea. Handitze hori Getxoren kasuan, Getxoko geltokiaren inguruan gertatzen da eta ez Bidezabaletik hurbil, gainera hainbeste institutu zein ikastolatako ikasle, irakasle zein langilei eta inguruko nagusiei zerbitzu publiko bat kendu zaie (eta gero autoa gehiegi erabiltzeaz kezkatzen dira gure agintariak).

Metroaren *1 linea* deritzonaren barruan badira bidaiari kopuru oso txikiak dauzkaten geltokiak (Aiboa, Lamiako...), baina hala ere, mantendu egin dira. Getxokoa zergatik ez?

Getxotar guztion iritziaren kontra, gainera, zera egin nahi dute: errepidea lurrazpiratu, "probisionalki", nahiz eta udalak bere HAPOan metroa lurperatzea aurrikusi.

Azkenaldi honetan gainera proiektu erraldoia aurkeztu dute, Metroa Bidezabaletik Getxoko Andra Mariraino lurrazpiratzearena. Chapeau! Zorionak! Horretan Iosune zurekin ados gaude, hainbeste lehentasun daude beste leku askotan ezen ez baitugu sinisten hori egingo dutenik. Gainera "horretarako ez dute datarik ezta diru partidarik ere prestatu". Beraz: Getxon Metroa lurrazpiratu eta geltokia zegoen lekuan jarri! Orain!

JAVIER RAMOS ASENSIO
(SENDOA ELKARTEKOA)

LAVOMATIQUE
IKUZTEGIA - LEHORGARBIKETA
GARBITEGIA - EDREDOIAK
T: 430.13.93
Iturribide 9
48990 ALGORTA - GETXO

GAVRKO
GIZONENTZAKO MODA
T: 4607084

Maria Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA
HARTU TXANDA

EREAGA
Bidaiak
Autobuoak
T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak
nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!
Algortako etorbidea 78 T: 94 491 27 34

Zeintzuk dituzu Uribe Kostako jai gustukoenak?

EGILEAK: ITZIAR PORTILLA, JANIRE ITURRIAGA & KATRIN MUGERZA

VILLABOTAS
JATETXEA
Menu merke eta bariatuak
Espezialitateen karta
Giro atsegina
T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

MOROTXO
Kantxa Kizol moda
TORRENE 13
48990 ALGORTA
TF. 4911882

CALZADOS RIKI
UMEAK
GAZTEAK
Kale Nagusia 30 - T: 4645543
AREETA

Aurkezpen ekitaldiak

Kronika

Aldizkaria labetik atera eta segituan ekin genion ospatze lanei. **Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak** antolatuta bertso afari batez eman genion ongi etorria aldizkari berriari. Ongi etorria bai, eman genion, baina han ez zen aldizkariaren arrastorik azaldu, izan ere norbaitek aldizkaria eroatea ahaztu ei zuen. Hala ere, han elkartu ginen laurogei lagunok giro onean eta alaitasunez gozatu genituen **Jon Maia** eta **Igor Elortzaren** bertsoak. Saio ederrra entzuteko aukera izan genuen, jatetxeko jabeak auzokide asperturen batek ertzainei dei egin ziela jakinarazi zigun arte. Saioa bukatu eta bertso gehiagotarako gogoa zuten hara bildutakoek, eta hantxe bertan, jatetxeko atarian, baina kanpoan, segitu zuen saioak gure auzokide maitagarri haren pozerako.

Aurkezpen ofiziala, duela lau urte bezala, Faduran egin genuen. Ekitaldirako Eusko Jaurlartzatik **Josune Ariztondo** gonbidatu genuen eta mahaian izan genuen hizlari gure aldizkariko **Konrado Mugerza** eta **Esti Ezkerrarekin** batera. Gure zuzendariak, **Jokin Aspuru**, ez ei du gustuko publikoan berba egitea, eta halaxe demostratu zigun beste behin ere. Bazter batean aldizkariko kazetaria den **Verónica Muñozen** ondoan ikusi genuen. **Zaloa Mendez** eta **Mikel Martinez**, aldizkariko lantaldea osotzen duten beste bi lagunek, ez zuten egun hartan hara hurbiltzerik izan.

Hitzaldia, eta ondoren, luntxa. Hauteskundeak hurbil zeuden eta han ikusi genuen **Iñaki Zarraoa**, Getxoko alkate berria, kanpainan bere aurkaria izan den **Christian Reinicke** zinegotziarekin berbetan (ezkutu itunen bat prestatzen?). Azken hau, *Fermintxu* bere semetxoarekin eta EHko hautagaiak izen diren **Txomin Bengoa** eta **Pili Askorbebeitiarekin** hurbildu zen aurkezpen ekitaldira. EHUko irakaslea den **Gorka Oruetak** eta **Koldo Iturbe** zinegotzi berriak animoso hitz egiten zuten. Leioako Euskara Zerbitzuko lehendakari **Jon Markaida** eta hango Euskara Teknikari **Joxi Arakama** ezagutzeko aukera izan genuen. Enpresa mundutik, proiektu honetan hainbat lagundu digun **Txolo Landaluze** bere emaztearekin batera etorri zitzaigun, Metro Bilbaotik berriz, **Iosune Uriarte**. Irakasle asko ere hurbildu zen luntxera, akaso gutxi ordaintzen dietelako. Han izan ziren **Jon Ander Garaizar, Bittor Egurrola** (gure kolaboratzailea), **José Ramón Zenigaonaindia, Jon Aurtenetxe, Hilario Urien...** Eskola ordua izan arren, euskaltegietako irakasle asko igarri genituen pintxoen mahaiaren inguruan, AEK-ko Uribe Kostako arduraduna, **Igor Elordui**, bere lankidez inguratuta, **Gorka Uriarte** eta **Idoia Egurrola**; Jose Antonio Agirre Euskaltegitik **Inma Infiesta** eta **Miren Moral**. Bertsoen munduak ere izan zuen han ordezkaririk, **Joseba Santxo** editorea han zen, eta bere aurrean lotsa apur bat ere sentitu genuen, izan ere bertso batzuk eskatu genizkion 0 zenbakirako eta ezin ebita izan genuen akats tipografiko bat. Barkatu, Joseba! Honekin eta bestearekin berbetan ere han zebiltzan besteak beste, laster aita izango den **Josu Egurrola** (zorionak!), Euskara Elkarteko lehendakaria den **Alfredo López de Gereño Iker Loresekin** auskalo zer tramatzen eta beste hainbat lagun. ■

BILBOMICRO

Elkarte Anonimoa

Colón de Larreategui, 25
Tf. 4230212
ZERBITZU TEKNIKOA
Tf. 4230213
48001 BILBAO

1982az geroztik
soluzio informatikoak
eskaintzen

BILBOMICRO

aldai

TAPIZTEGIA - DEKORAZIOA
ERAKUSKETA ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

KUKUMIKU
prentsa
aldizkariak
gozokiak

Juan Bautista Zabala 11
T: 491 29 22
•ALGORTA•

Udal hauteskundeak; udal abertzaleak

Hementxe dituzue ekaineko udal hauteskundetako emaitzak Uribe Kostan. Datu azpimagarri bi: alkate guztiak EAJ alderdikoak dira Uribe Kostan, EAJk gehiengoa lortu ez duen herri gehienetan, beste alderdi abertzaleen sustengua jaso du, bai EArena eta bai EHrena ere.

GETXO

	botoak	zin.
EA+EAJ	17.416	11
PP	15.565	9
EH	6.161	3
PSE-EE	4.743	2
IU	1.945	0
Besteak	293	0

Alkatea: *Iñaki Zarraoa*
EAJ, EA eta EHren botoekin

BARRIKA

	botoak	zin.
EAJ	314	5
EH	187	3
PP	53	3
EA	37	0
PSE-EE	27	0

Alkatea: *J. M. Ezpeleta*
EAJren botoekin

SOPELA

	botoak	zin.
EAJ	2.060	6
EH	1.241	4
PP	526	1
PSE-EE	498	1
IU	439	0
EA	2174	0

Alkatea: *Ander Urrutia*
EAJ eta EHren botoekin

GORLIZ

	botoak	zin.
EAJ	1.098	6
IND.	507	3
EH	407	2
PP	164	0
EA	113	0
PSE-EE	46	0

Alkatea: *Patxo Igartua*
EAJren botoekin

LEMOIZ

	botoak	zin.
EAJ	291	4
IND.	145	2
EH	111	1
PP	17	0
EA	9	0

Alkatea: *Benito Andraka*
EAJren botoekin

LEIOA

	botoak	zin.
EAJ	15.079	9
PSE-EE	2.661	4
PP	2.602	4
EH	2.018	3
IU	1.071	1
EA	685	0

Alkatea: *Karmelo Saiz de la Maza*
EAJ eta EHren botoekin

Alkatea: *J. A. Landa*
EAJ eta EAren botoekin

Alkatea: *Nikolas Oñate*
EAJren botoekin

Alkatea: *Juan Olea*
EAJren botoekin

ERANDIO

	botoak	zin.
EA+EAJ	4.632	9
PS-EE	2.520	5
EH	1.844	3
PP	1.509	1
IU	672	1

Alkatea: *Mikel Arrieta*
EAJ eta EAren botoekin

BERANGO

	botoak	zin.
EAJ	934	5
EH	637	3
PP	373	1
PSE-EE	278	1
EA	209	1
IU	154	0

URDULIZ

	botoak	zin.
EAJ	727	5
EH	492	3
PSE-EE	154	1
PP	153	1
EA	151	0
IU	47	0

PLENTZIA

	botoak	zin.
EAJ	969	6
EH	397	2
PP	172	1
EA	148	1
PSE-EE	76	0
IU	38	0

Datuak: Euskaldunon Egunkaria
Infografia: G. Almagia

Julio Ibarra

Bera aurkeztea soberan dago, aurkezpen lanetan bera da aditua. Izan ere, Santutxuko bilbotar honek urte ugari darama Euskal Telebistako gaueko albistegiak aurkezten eta zuzentzen.

Testua: Zaloa Mendez / Argazkiak: Jokin Aspuru

—Urte asko daramazu albistegiak aurkezten. Ez al zaude nekatuta?

—Egia esan, nik atsegin dut telebistan agertzea. Beste kontu bat da egunero berriak esaten ibili beharra. Beharbada, beste programa batean gusturago egongo nintzateke. Dena den, albistegiak, egun, Euskal Herrian dugun egoera politiko berriarekin, erakargarriagoak dira.

—Gai hori aipatu duzularik, nola ikusten duzu Euskal Herriko komunikabideen jarrera egoera politiko berriaren aurrean?

—Txarto. Oraindik zenbait medio ez da konturatu bake prozesu berri batean sartu garela eta antzinako eskemekin jarraitzen dute. Nik sekulako haserraldiak harrapatzen ditut. Guk jakin behar dugu komunikabideek jendearengan eragin izugarria dutela. Ematen du zenbait komunikabide indarkeriarekin hobeto bizi zela, bazutelako zer kontatu. Honek ez du egoera konpontzen laguntzen.

—Aurkezlea izateaz gain, editorea ere bazara. Lanbide horrek loa kentzen al dizu?

—Duela bospasei urte, kazetari hutsa nintzenean, ordutegia betetzen nuen eta beste batek hartzen zituen erabakiak. Orain beste aldean nago, erabakiak neuk hartu behar ditut. Lanetik ateratzen naizenean hurrengo eguneko lanean pentsatzen hasten naiz, ezin dut deskonektatu. Egonezina sortzen zait.

—Beraz, kazetari askoren lana koordinatu behar duzu. Nagusi ona al zara?

—Ardurak norberak dituenean erabaki asko hartu behar izaten dira. Saiatu beharra dago erabakiak guztiontzat egokiak izan daitezen, baina oso zaila izaten da. Ardurarik izan ezean lagun asko izaten dira, ez dago haserrerik. Lehen jatorragoa nintzen.

—Zenbat ordu ematen dituzu lanean?

—Egia esan nire eguna ez da inoiz amaitzen. Ordu bietan sartzen naiz lanera eta gaueko hamabietan heltzen naiz etxera. Orduan, egunean zehar irakurri ez ditudan egunkariak irakurtzen ditut eta gaueko albistegiak ikusten ditut. Goizaldeko ordu bi eta erdietan oheratzen naiz. Egia esan egun osoa lanari *engantxatuta* nago. Korrika egitera ateratzen naizenean ere irratietako albistegiak entzuten ditut. Benetan, lan erakargarria da hau!

—Zer esaten dizu jendeak kaletik?

—Denetik dago. Batzuen ustez, garai batean ezker abertzale eta presoei buruzko informazio gutxi ematen zen. Orain PPkoek abertzalegiak garela esaten digute. Nire ikuspuntutik, hori inportantea da, horrek esan nahi duelako erditik joaten saiatzen garela. Bi aldeetatik egurra ematen digutenean, horrek zera esan nahi du, nolabait zentratuta gaudela. Beste alde batetik, jendeak kalean telebistan baino gazteagoa ematen dudala esaten dit. Poztekoa da!

—Zein funtzio bete behar du euskal komunikabide publiko batek?

—Komunikabideak, publikoa den heinean, zerbitzu publiko bat eskaini behar du, audientzia, publizitatea eta gauza horien guztien gainetik. Supo-

"Euskal Herrian egun bizi dugun egoera politiko berriarekin, albistegiak erakargarriagoak dira"



satzen da gure konpromisoa ez dela *"Sorpresa, sorpresa"* bezalako saioak egitea. Guk egin behar duguna da euskara bultzatu, euskal kultura bultzatu...

—Eta ETBk betetzen al du funtzio hori?
—Nire uste apalean, badago zer hobetu.

—Zuk irratian ere urte asko eman dituzu. Zein duzu nahiago, irratia ala telebista?
—Radio Euskadin hasi eta ondoren telebistara joan nintzen, gero, berriro irratira... Ez dakit, bakoitzak bere zera dauka, ez daude elkarren kontra. Baina gusturago nago telebistan.

—Zer deritzozu EITBko zuzendariaren izendapen berriari?
—Beti esaten da heldu berriari *"zalantzaren benefizioa"* delako hori zor zaiola. Lehendabizi ikusi behar dugu zer egiten duen geroago epaitu ahal izateko.

—Manipulazioa ezinbestekoa al da?
—Niri galdetu didate ea manipulatzailea naizen ala ez. Jakina baietz! Manipulatzea, eskuen artetik pasatzen dena lantzea da. Esaterako, ordu beteko prentsaurrekoa minutu batean laburbilduta kontatu behar dugu. Horretarako infomazioa manipulatu egin behar da. Suposatzekoa da profesionalak prentsaurreko edukirik interesgarrienak aukerako dituela. Hala ere, hurrengo egunean komunikabide ezberdinetan titularrak ez dira bat etorriko. Hori zer da? Manipulazioa. Nik beti istorio bera kontatzen dut. Badaukat lagun bat, jakien manipulatzailea dena, karneta eta guzti dauka. Zer esan nahi du horrek? Bezero guztiak pozoindu behar dituela? Ba, ez. Berak hiltegitik ekarritako pieza jaso eta txuleta, petxuga edo dena delakoa ateratzen dizkio. Bai, manipulatzailea da, baina ez horregatik susmagarri. Hori bai, gu Andrinua gara eta beste batzuk Simeone, baina txartel horia beti guri ateratzen digute. Sarritan gorria.

"Ematen du zenbait komunikabide indarkeriarekin hobeto bizi zela, bazutela zer kontatu-edo"

—Lana alde batera utzita, zer egiten du Julio Ibarrak asti denboran?
—Asti gutxi badut ere, jeneralean hondartzara joaten naiz, irakurri egiten dut... Betiko topikoak. Sopelan bizi naiz baina Sopelan bizitza gutxi egiten dut. Hondartza gaineko itsas-labarretatik paseatzea oso gustukoa dut, batez ere neguan. Era horretan, barruan ditudan zikinkeria guztiak askatzen ditut.

—Zein musika estiloa atsegin duzu?
—Nik denetik atsegin dut. Reggea-a adibidez, oso gustukoa dut, udarako oso egokia.

—Zer ez zenuke sekula barkatuko?
—Traizioa.

—Eta zein da zure ustetan balorerik garrantzitsuena?
—Zintzotasuna.

—Zein da zure akatsik nabarmenena?
—Duda barik, oroimen falta.

—Kazetariren bat...
—Informatiboetan badago oso profesional ona, Fernando Onega. Horrek ez du esan nahi bere planteamenduarekin ados nagoenik. Bere lan egiteko modua izugarri atsegin dut. Bestalde, nahiz eta jendeak pentsatu txorakeria dela, nire ustez Jesús Hermida *monstruo* bat da. Zoragarria da platoan mugitzeko duen modua. Bertokoen artean, Ramón Garcia aipatuko nuke, bere lanean oso trebea da.

—Nola ikusten du Juliok bere burua 65 urterekin?
—Ile askorekin (barreak). ■

hiru urtez aldizkari hau dohainik banatu dugu, gure ustez bada kobratzen hasteko sasoia, ez da asko, urtean 2.000 pta.

Jaso nahi duzu UK?

Lagunduko gaituzu?

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

Harpidetza

Harpidetza egin nahi nuke (12 euro = 2.000 pta./urte)

Izen-deiturak:.....
Helbidea:.....
Herria:..... *Posta Kodea* .....
Telefonoa:.....
e-mail:.....
Kontu zenbakia (20 zenbaki) .....

Sinadura

UK Uribe Kostako Aldizkaria - 171 posta kutxa. - 48990 GETXO
Tel - Fax: 94 491 13 37 / aldizkaria@euskalnet.net

Phil Woods saxojolea eszenan jarriz, antolatzaileek astelehena igandez jantzi nahi izan zuten

Ezkerrean baterian, Gene Calderazzo, azpian Phil Woods saxoaren maisua, eta bere ondoan, Steve Watts baxujolea

Getxoko Jazzaldia

Testua: Iñaki Astigarraga / Argazkiak: Konrado Mugerza

Getxoko XXIII. Europar Jazzaldia izan da Euskal Herriko jazz denboraldia ireki duena, berriz ere gauza bera erakutsiz: txikia bikaina izan daiteke. Formula sinplea da baina ez da honelakorik gertatzen inguruetako jazzaldietan. Getxon xehetasunak ondo zaintzen dira.

Nabarmena da antolatzaileen aldetik jendeak, prentsa espezializatuak eta batez ere musikariek jasotzen duten tratu bikaina, bai lehiatzera aurkezten diren taldeak, bai eta gonbidatuta datozen figura handiak ere. Jokabide horrek ezer gutxi ematen du baina, azkenean, hori guztia islatu egiten da eszenatokia eta platearen artean une nagusietan sortzen den komunikazioan.

Lehen sarirako lehiakide diren taldeek bitarteko guztiak izaten dituzte euren indarrak erakusteko oso abegikorra eta sarritan errenditua agertzen den publikoaren aurrean. Eta sariak eurak ere egokiak dira, edozein musikarik bere burua ezagutzera emateko eta lanbide zail honi kementsu ekiteko behar dituenak.

Alabaina, ale berrien aurtengo uzta ez da ona izan, mezu musikal berriak etendura bidez emateko alferreko ahaleginak aurkitu ditugu sarritan. Talde bi baino ez ziren gai izan euren proposamena bide egokiz adierazteko: Zenker/Happe 4Tet holandarrak, lehen sariaz jabetu zirenak, eta Alexander Shevtsov Trio errusiar hirukoteko kideak, bigarren postu ezin duinagoa eskuratu zutenak.

Europar jazzeko figura handien sailean denetik izan genuen. Une apartak baino ez ditugu azpimarratuko, jazzaldi hau gure gogoan gordeko duten ekitaldi berezi horiek. Ez zen jazza, eta ze demontre!, baina Moscow Art Trio taldearen joaldiak hunkitu egin zuen entzulegoa. Europako ekialdeko kulturak eta jazz erritmoak bateratzeko ahaleginean ibilbide xarmangarria egin zuten, ñabarduraz betea, eta publikoa sustraietatik sortzen ziren doinuen paisajeetan zehar eraman zuten, azkenean aire berritzaileetan lurrintzeko.

Paolo Fresu tronpeta jole italiarraren agerraldiaren zain zegoen jendea, ume gaizto baten azken bihurrikeriaren zain egoten den bezalaxe. Izan ere, horrelakoxea da bera, eta horrelaxe plazaratu zen. Miles Davisek berrogeita hamarrekoan moldatu zituen doinuetan oinarriturik, Fresu gogoeta oso pertsonalean galdu zen, eszenako bere hiru kideekin bakarrik konpartitu zuena. Jesarrita kontzertu guztian zehar, atzea emanez entzulegoari, ustekabeko soinu jolasean trabatu zen eta Antonello Sallis piano eta eskusoinu jolearekin lortu zuen konplizitatea izan zen Fresuren koartadarik onena. Bere azken grabazio biak opari polita izan daitezke nor berarentzat eta Getxora egin duen bisitaldiaren oroigarri egokia.

Jazzaldi honi akabera emateko, Phil Woods maisua eszenan jarriz antolatzaileek astelehena igandez mozorrotu nahi izan zuten. Garai bateko "Bird" mitikoaren ikaslerik aurreratuena, irakaslerik onena da gaur egun jazzaren historiako pasarte ederrenak berrikusteko. Phil Woodsek hirurogeiko hamarkadako azken urteetan eskuratu zuen doktoregoa bere biriken indarrean eta atzamarren amorruan oinarritutako tesiaren bitartez eta, Getxon, harrezkero urte batzuk joan badira ere, Charlie Parkerrek markatu zuen bidea gogoratzeko memoria baduela erakutsi zigun, bai eta bere ibilbide propioa egiteko gaitasuna ere. Ez zuen ezer berririk esan, bera protagonista duten istorio zaharrak kontatu zituen. Baina nahikoa izan zen bertan geunden guztioi zerbait baginela sentiarazteko.

Amaiera egokia, beraz, izen propio gehiago ere izan zituen jazzaldi baterako. Baina memoriak bere aukera egiten du. Agian, eszenatokiak eman diezagukeen gauzarik onena zenbait une gogoangarri dira, urte guztian zehar jazzaldi berria noiz helduko zain mantenduko gaituzten uneak. Azken batez, Pio Lindegaardek irakatsi zigun lekzio bera: "*Jazza ez da sekula joaten gure gogoan zerbait utzi gabe*". Horregatik, lagun handi horren ausentzia, soinu bakoitzean, inoiz baino indartsuago somatu genuen gure artean. ■

•Iñaki Astigarraga kazetaria eta Bilbaina Jazz Club-eko bazkide sortzailea da

GAZTAÑAGA
INTERSPORT
TRAVEL CLUB
Lortu zure puntuak HEMEN!!
Kiroletarako behar duzun guztia!
Amesti 8 T: 4910605 ALGORTA
Sarrikobaso 42 T: 4300397 ALGORTA
Sabino Arana 93 T: 4646617 LEIOA

ITXASO PRENTSA
Salsidu 1, ALGORTA
ORAIN ERE BAI!!
ITXASGANE PRENTSA
Kirol Portua, ALGORTA
Pi ru lin Pin pan tri lu ra...
GOAZEN DENOK MENDIRA

BODEGUILLA BUTRON
Hemen euskaraz!
Bidebitarte 5 ALGORTA

Ugarte jauna

Leioako "Artea" gune komertzialaren ondoan egon gara Ugarte jaunaren etxaldean. Apropos eginda balego legez, hortxe dagoz alkarren ondoan lehengo bizimodua eta gaurkoa zein gerokoa. Gauza polita da, duda barik, gaurko arazoez deskonektatu eta animaliaz betetako leku batean sartu ahal izatea, bide batez baserriko beharren gainean arean ikasiz. Ea zer esaten deuskun...

Testua: Andoni Llosa / Argazkiak: Mikel Martinez

—...Komenta *du* lehen, Juan, hemeko baserriko bizimodua galduko dala baia horre(g)az batera hemeko euskera be ez da galduko?

—Bai, bai bai... hemen ez dago lehengo... aitu, hor Getxon, dana txaletak... han egote ziren lehen... behiek **pastun**, hogeita hamar behi ingerun egoten ziren egunen-egunen pastun, ta akaba da. Beste batek be, bedarrak ebagiteko dekoz han, zementerio ondon hiru **lantziñe**, ta nik ekarten do(t)az, haik bedarrak hona. Harek ganadu danak be kita **euzen**, danak. Halan dagoz danak. Getxon gaur dana da zemento, jente aberatsa, bizi ondo.

—Baia zer pasaten da ba, ganadu duzti kentzeko?

—Baa, gaztek ez deudela ganadu gure, ganaduk deko sujeziño handi, gane-ganen egon ber dozu, gau ta egun... zapatun ta domekan ta... partok, eta behiek txalak ezin atara sarri hemen goizalden ta... behar asko dago. Gu han behean bixi gintzen baia bota **euskuezan** etze eta gortak eta, ta gero goien egin gendun barri... Ia nok egingo **eun** hemen goien aurrekoa **koxi** ta segiduteko? Inok bere ez! Segiduteko ganadukez aurrerantza? Inor bere ez dago, eze gaur jente kalera bizi, koxi pisu bet eta kito. Nik bere euki nendun pisu, baia ez nendun gure... nik gorte barrin eta etze barrin gure nendun... ze pisu baten be zer egiten dozu? Ni ez nago inoz akostunbrata pisun, ni hemen. etze ederra!



—Politxe dekozu, bai...

—Bai, behean be euki gendun etze ederra, ezta? Gortak, pabelloiak be txikerrago, baia ganadu zarratuteago euki gendun, alkarren ganen itoteago. Orain hemen ederto... **haxek** ederto, ta... aitu bistek, Algorta duzti ikusten da hemeti... han dago Euskal Herria kalle, hara eroaten dot nik ganadu, Angel Molano karniserugana... Zine Gurea, Trinitarios... ikastola... dana ikusten da hemeti... bistek? Itzelak hemen, eta hemeti gorago, hobeto, soloetati. Ta gero aa... bakar-bakarrik gagoz, norberana da duzti, horrek asko gure deu esan. Ez dotzesu molesta ber iñori bere, norberana duzti. Hemen ahuntze eskapaten bada solo batera, hori solo norberana da ta ez deko **lebarik...** oilo eskapaten bada astrakaten, norberana da... hori asko gauza da, ze bestealden dagozen lekuten beti dagoz greskak, edo sartu dalako edo txakurre eskapa dalako beti dago zeozer. Hemen ez, horretan suerte **deku.**

—Zeu beti bizi izan zara etxekoaz, ezta?



Ez dozu inoz etxetik kanpo beharrik egin...

—Beti, beti... guk beti etzekoa, guresok-eta be bertokok eta etzekoa beti... ze nik ama difunta euki nendun baliente nik, ak dekoz kopak feriatan irebazite, hasi Algortan ta Gerniken ta... leku duztitera yoten zan ortuariez. Hemeko behekoa zan, bertoko.

—Zelan kanbia dan hemeko ingerua, eh? "Artea" dala, bestea dala...

—Bai. Niri "Artea"k ez deust kalterik egin baia dendatan, dendatan... Areatan eta Romon eta horti, denda erropadunek ez deude saltxen, zapatadunek bere ez... asko merkeago ta komodoago dana... andre-gixona kanpon dabiltzeseles beharren, etorri gero illundetan ta **betatu** kotxe aste duztireko yatekoaz ta badoaz. **Halan da ze,** txikerrak hil. Zinek bere asko dagoz, gasoliñe bere asko merkeago... gasoliñe botateko bere... kole!

—Ganadu kontun be txikerrak ez deko zer eginik, ezta? Zenbet behi dekozu, Juan?

—Berrogetamar. Okelarako, eta batan bat esnerako... orain-txe egon naz erasten. Gero be badekoaz txarri batzu etzerako baino ez, oilok eta oilaskok feriatarako, konejuk, ahuntzek, paton bat, ta gero solok: piperrak, indabak, arto, intxurrek bere bai, urretxak... aurten hainbet urretxa dau, tomatek, patatak... Zuk esan dozune, behi gitxikez ez dau zeriñik. Etzalde txikerrak ez **deke** zeriñik. Ganadu asko behar da, **ostantzen** itota. Etzalde handik, ba zeozertxu **giau** egingo deude, **aren** giau atarako dozu baia gane-ganen egon ber dozu... Ganadu ez da lodituten egun beten, ta ganaduk ez deko jaiarik, egunen-egunen yan ber deu, gorta garbikuzi, satzak atara... ez dago domekarik. Niri gustaten dast, baia ostantzen...

—Zelango panorama...

—Halan da. Hemeti ganadun eta etzalden kontu akaba da, akabata dago, ze gaztek ez deude gure ta zaharrak hilten dire... Leioako unibersidadetik behera artez-artez zoazela, Lertutxen beste bat dago, ak esneko dekoz behiek, Jon Atxalandabaso, ehun ta piko dekoz, danak esnerako. Leioan a bakarrik dago, ez besterik. A bakarrik lotu da Leioan. Herri bakotxan bat-edo, lotuko da. Hemeti Plentzirarten akabaten dagoz etzaldek, Plentzin bere bat lotu da, Gorlizen beste bat... Fanon kendu **eurezan** esnerako behi duztik. Gobernuk emoten deu diru bet, subentziñoa, zu apuntaten zara subentziñorako ta aprobaten badotzue... fuera behiek. **Martirarten** euki deude plazo Plentzikok ganadu kentxeko, seme koloka dako beste leku beten ta... Urdulizen be pabelloi ederra, han dago hutsik, danak kita euzen... hirurogei behi, koxu ta danak eroan euzen mataderora Burgosera, kamioikade bi edo hiru behiez betatute, ta zelango behiek...! Ta esneaz bakizu zer pasten dan?

—Zer ba?

—Gaurko andrak ez deudela esne egosi gure. Aitu hemen zenbet jente dagon, ta Getxo duztin bat edo bi letxeru bakarrik lotu dire. Oilaskok eta holango jenerok **lumetu** gure bere ez... yakin bere ez zelan lumetuten dan, nik hainbet hilten do(t)az ta hamar minututan oilasko hilte lumetu eta ederto dago eskegitxe, nik askori egiten dotzet hori, jentek eskatuten deust plazan bertan ta lumetute eroaten dau oilasko etzera... jentek konejuri narru kendu gure eta yakin bere ez... honek gauzak akabata dagoz.

—Bueno ba Juan, itxiko zaitxut beharren...

—Bai ba, banoa hairi behiri pentzu emoten, **murruzeka** dagoz ta! ■

Berbak

- ***du:*** *dogu*
- ***halan da ze:*** *beraz*
- ***pastun:*** *larrean*
- ***deke:*** *daukate, deukie*
- ***lantziñe:*** *lantzar, erein bako landak*
- ***ostantzen:*** *osterantzean, bestela*
- ***euzen:*** *zituen*
- ***giau:*** *gehiago*
- ***euskuezan:*** *zizkiguten*
- ***aren:*** *arean, apur bat*
- ***eun:*** *zuen, eban*
- ***eurezan:*** *zituzten*
- ***koxi:*** *hartu*
- ***martirarten:*** *martxora arte*
- ***haxek:*** *haizeak*
- ***lumetu:*** *lumak kendu*
- ***lebarik:*** *garrantzirik*
- ***murruzeka:*** *marruka*
- ***deku:*** *daukagu*
- ***betatu:*** *bete*



Leioako Euskal Kirolzaleak Kluba norgehiagoka

kirola

sokatira

TESTUA: ZALOA MENDEZ

Sei urtez sokatiraka

Leioako mutilen sokatira taldea duela sei urte jaio zen herriko Euskal Kirolzaleak Klubaren eskutik. Lehendabiziko egunetan gazte asko agertu ziren entrenamenduetara baina denborak aurrera egin ahala, eta sokatiran aritzeak suposatzen duen ahalegin izugarria ikusita, zenbaitek utzi egin zuen. Egun, batez beste 20 urte dituzten hemezortzi mutil aritzen dira astero Ondizko probalekuan sokatiran.

Neskak ere badaude baina hauek urte batzuk geroago hasi dira entrenatzen, 1997an hain zuzen ere. Egun, hamalau neskek osatzen dute Leioako nesken sokatira taldea.

Nahiz eta duela sei urte entrenatzen hasi, mutilek 1996an hartu zuten parte lehenengo aldiz lehiaketa batean. Guillermo Bilbao Leioako Euskal Kirolzaleak Klubeko presidenteak azaltzen duenez, *"sokatiran lehiatzen hasteko prestaketa luzea behar da, mutilek hiru urte behar izan dituzte"*.

Mutilek oraindik ez dute txapelketarik ezta dominarik ere irabazi, baina Joseba Olabarrieta entrenatzailearen agindui esker, pixkanaka emaitza onak lortzen hasi dira bai neskak eta bai mutilak. Dagoeneko batzuek zein besteek munduko sokatira lehiaketetan hartu dute parte. Mutilak birritan izan dira: 1997an Ingalaterran eta iaz Irlandan. Azken lurralde horretan lehenengo hamarren artean geratu ziren.

Neskak iaz hasi ziren txapelketetan parte hartzen eta Irlandan egin zen munduko sokatira txapelketan laugarren tokia lortu zuten. Horrez gain, Euskadiko txapelketetan brontzezko bi domina eskuratu dituzte.

Bi taldeek seriotasun handiz entrenatzen dute. Entrenatzailea, Joseba Olabarrieta ez da nolanahikoa, munduko txapelduna izan da bai taldetan eta bai indibidualetan ere. *"Oso zorrotza da, baina sokatirak berak zorroztasuna eskatzen du. Kirolariek elikadura asko zaindu behar dute, egunero korrika egin behar dute eta aldian behin medikuarenera joan behar dira errehisioa egitera"* azaldu digu Guillermo Bilbaok. Horrez gain, Leioako kirolariek prestatzaile fisiko batek eta masajista batek lagunduta entrenatzen dute.

Udan sartuta, entrenamenduak eten egin dira eta kirolariek atsedena hartu dute. Irailean bueltan izango dira alde batetik, abenduan egingo den Euskadiko sokatira txapelketa eta bestetik, Holandan izango den Mundukoa prestatzen hasteko. Ea gure leioarrek postu onak lortzen dituzten. ■

Giroan txapeldun

Joane Somarriba txirrindulari sopelatarrak irabazi du aurtengo *Giroa*

Uztailaren hamarrean Sopelako airea arnastu zen italiar Giroko podiumean. Txirringan baino ezin azkarragoak ziren bi hegok bultzatuta ailegatu zen Joane Somarriba azken etapako helmugara.

Urte batzuk atzera, emakumezko txirrindularitza talde profesional baten bila Italiara hurbildu zen Joane. Bertan aurtengo Giroan lehenengo hiru postuak eskuratu dituen Alfa Lum taldean aurkitu zuen bere ametsa. Eztabaidazina da kirolari honek egindako lan gogorra, berak dionez *"orain arte sofrimendua besterik ez dut jaso, baina orain sentitzen ari naizena... laino batean bezala nago"*. Orain, gelditzen zaion ametsik handiena lortutako maglia arrosa honek bi gurpilen gaineko kirol honentzat bultzada handi bat ekartzea da. Bere ustetan Euskal Herrian gizonezkoen txirrindularitzak indar itzela badu ere emakumezkoen kasuan ez da inondik inora ezagutzera eman. Somarribak jantzi duen maglia arrosa Vicente Sanroma zendu berri den txirrindulariari eta familiari eskaini die. ■

Joane Somarribak Italiako Alfa Lume taldean korritzen du



EGUNKARIA

Kiroletan blai

udarako kirol aukerak Uribe Kostan

Uda gainean eta oporrak hartzeko ordua heldu da azkenik. Jakin ezazu denboraldi ezinhobea dela hau kirola praktikatzeko, beraz, alfer hori, bada garaia nagiak ateratzeko eta egun hauetan zer egingo duzun pentsatzen hasteko. Uribe Kostan bertan eskaintza zabala badago eta horien berri ematen dizugu jarraian. Datu gehiagorako Getxoko turismo bulegoarekin harremanetan jar zaitezke 94 491 08 00 telefono zenbakian edo www.getxo.net helbide elektronikoan.

lurrean...

Zoriontsu izateko oin azpian lurra eduki behar baldin baduzu eta gainera abenturazale amorratua bazara, mountain bike, espeleologia, eskalada edota puentinga praktika ditzakezu. Egun bakarreko jarduerak dira eta beren prezioa 3.000-5.000 pta. bitartean kokatzen da. Oinarrizko kontzeptu teorikoak irakatsita, ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izango duzu Urdulizeko haitzetan.

...uretan...

Itsasoa gustuko baduzu, arrainek baino hobeto igeri egiten baduzu eta noizbait Ugarteren urratsak jarraitzea otu bazaizu, ez dudarik izan, bela praktikatzea gomendatzen dizugu. Euskal Herriko kostaldea ezagutzeko aukera eskaintzen dute bela eskola ezberdinek eta horrez gain, marinel trebea izaten irakatsi ere. Egun bakarreko ikastaroek 11.000 pta. balio dute eta asteburukoek 20.000 pta. Gainera, asteburuetan urpean ibiltzeko ikastaro ezberdinak badira, hauek 2.500 pezetatan. Kirol hau garestiegia iruditzen bazaizu, lasai. Berdin-berdin nabegatuko duzu piragua batean. Butre ibaian zehar ibilaldiak badaude eta bi egunetako kurtsoak 5.000 pezetatan aurki ditzakezu.

eta zeruan

Supermanen filmeak ikusi eta gozatu bazenituen, oraintxe duzu bera bezala airetik ibiltzeko aukera. Sopelan baduzu parapente eta delta hegalaldia ikasteko eta praktikatzeko aukera baina ez ahaztu behin goian izanda ez duzula atzera egiterik. Zorabiatzen direnentzat ez da batere gomendagarria.



Cesaria Evora

Testua: Iker Lores

CESARIA EVORA
"Café atlantico"

Cabo Verde-tik datorkigun emakume txiki baina ahots handia duen honek, bere azken lana kaleratu berri du aurtengo maiatzean. Cabo Verde Senegalen parean dagoen irla txiki bat da eta 1975. urtera arte Portugalen agindupean egon da. Kolonizazio horren eragina nabaria da Cesariaren musikan, lotura handiagoa baitauka fadoarekin edo Brasil-eko musikarekin Afrikako edozein adierazpen musikalarekin baino. *Café Atlantico* deituriko lan honetan fadoen samina oso da nabaria eta bere letretan bihotzaren urradurak eta tristezia bazter guztiak betetzen ditu. *Morna* deitzen zaio kanta mota honi. Horren adibide *"Flôr di nha esperança"* edo *"Paraiso di atlantico"* bezalako kantak dira. Ez da, ordea, disko motela eta aspergarria. Aitzitik, kanta guztiek badute bere erritmoa. Erritmo hau areagotu egiten da *"Sorte"*, *"Carnaval de sao vicente"* edo *"Nho antone escaderode"* bezalako kantetan, azken honetan brasildar eragina oso argia delarik. Cuba ere gogora etor dakiguke *"Beijo de longe"* kantan.

Kriolu hizkera erabiltzen du Cesariak. Kriolu hau, portugalera eta afrikako zenbait hizkuntzen nahasketaren ondorioz sortutako hizkuntza da, baina portugaleraren kadentzia da nabarmenena.

Cesaria 1941. urtean jaio zen Mindelo herrian eta 45 urte bete arte Cabo Verdetik irten gabe zegoen. Pariserako bidea hartu eta harrez gero ez da gelditu, arrakastak bata bestearen ondoren etorri zaizkiolarik.

"Café Atlantico" lan berri honekin mundu mailako bira ematen ari da. Uztailaren hasieran Bilbao Tropikal jaialdian gure artean ikusteko aukera izan dugu. ■

RY COODER
"Buenavista social club"

Lan bikaina Ry Cooder-en eskutik datorkigun hau. Duela urte gutxi Grammy saria irabazi zuen CD honek eta bertan Kubako musikari ospetsuenek hartu dute parte. Izan ere Kubako musikari eskainitako disko honetan Compay Segundo, Eliades Ochoa, Ruben González, Ibrahim Ferrer eta Ry Cooder dira musikariak, baita Omara Portuondo eta Orlando *Cachaíto* Lopez ere, besteak beste.

Kubako musikari errepaso ederra egiten zaio, bertan kanta ezagunak agertzeaz gain estilo mordoa ere jorratzen delarik. Horrela, *Chan Chan, Dos Gardenias, Amor de loca juventud, El cuarto de Tula* bezalako kantak agertzen dira, hau da boleroa, "danzón" delakoa, son, guajira... Dantzarako propio egindakoa hain zuzen.

CD-ak liburuxka mardul bat dakar eta bertan kanta bakoitzari buruzko zenbait datu ere agertzen dira, eta horrez gain argazki mordoa.

Lan hau Habanako Egren Studio eta Los Angelesen grabatu zen 1996ko martxoan. ■

diskoak

kritika

Testua: Sabin Ugarte

Tolosako (Frantzia) talde honen hirugarren lana Gora Herriak / Esan Ozenki etxeak kaleratu du. Oraingoan Landetako Du Manoir estudioen eta New York artean grabatu dute eta Nicholas SanSano izan dute grabaketa buru. SanSano hau Public Enemy eta Sonic Youth taldeekin egindako lanagatik da ezaguna. Zebdak bere estiloari jarraipena ematen dio lan honetan, beti ere *raï-hop*-en barruan, baina zenbait elementu elektroniko berri gehitu egiten ditu, programazioak eta samplerrak batik bat. Bere letrei dagokienez, mezu unibersal eta politikoaren barruan mugitzen dira eta estatu frantsesean etorkinek pairatzen dutena islatzen dute, gehien bat. Ez da ahaztu behar Zebda taldeko partaidetako zenbaitek jatorri algeriarra dutela. ■

"Essence ordinaire" deitzen da Zebdaren disko berria

ENGLISH

• lessons as cheap as possible
• a qualified and experienced tutor
• tuition for all levels (grammar, writing...)
• conversation

a native tutor

5 lessons for 5,000 !

interested, call Marcus: 94 430 12 42

okupazioa

erromon

Testua: Verónica Muñoz
Argazkiak: Mikel M.

JAIETARAKO PROGRAMA➜ Abuztuak 2: *"Euskal presoak euskal gaztetxeetara"* poteo eta bazkaria / Abuztuak 5: *"San rock eguna"* dantzak eta kontzertua / Abuztuak 6: *"Okupazioaren aldeko eguna"* graffitiak eta kalejira / Abuztuak 7: *"Umeen txanda"* pailasoak... ska jaialdia

Erromoko gaztetxea

Ilusioz gainezka hainbat gazte ari da lanean autogestioan oinarritutako kultur proiektu honetan

Erromotik azken hilabete honetan pasatu garenok ohikoa ez den zerbait ikusi ahal izan dugu. Hasiera batean Getxon nonahi eraikitzen ari diren etxebizitza garesti horietako baten eraikin lanak direla pentsatu dezakegu. Baina pixka bat hurbiltzean berehala konturatu gaitezke hor jo eta ke lanean ari diren lagunak ez direla ohiko langileak, ezta konpontzen ari diren etxea ohiko etxe bat. Gazte hauek Erromoko gazteak dira, eta konpontzen ari diren etxe zaharra dagoeneko Erromoko Gaztetxea bihurtu da.

Gaur egun gizarteak gazteei eskaintzen dienari —kaleari eta tabernei, hain zuzen ere— bide alternatibo bat aurkitu nahian, Erromoko Gazte Asanbladako neskamutilek Erromon hiru urtez hutsik zegoen etxea okupatzea erabaki zuten. Hasierako pausua, beraz, Gazte Asanbladak eman zuen. Baina lehenengo unetik, Erromoko beste talde askotako gazteek orduan proiektu hutsa zen gaztetxera hurbildu eta bertan parte hartzea erabaki zuten. Ideiak eta laguntza ere leku askotik etorri zaizkie, esate baterako Leioako Gaztetxetik eta zenbait kolektibo desberdinetik. Gainera, eta kasu hauetan ohikoa ez bada ere, auzokideen erantzun ezin hobea jaso dutela azpimarratzen dute behin eta berriro.

Gazte hauen helbururik nagusiena kultur etxe bat sortzea da, eurek lortutako diruaz eurek nahi dituzten ekimenak gauzatu ahal izateko. Autogestioan oinarritutako proiektu honek jadanik bere lehenengo fruituak eman ditu; orain arte ezezagunak ziren auzoko hainbat lagunen artean giro ezin hobea lortu dute. Gaztetxearen proiektuak elkar ezagutzeko, elkarrekin hitz egiteko eta elkarrekin zerbait positiboa egiteko balio izan duela argi dute. Gazte hauen ustez lorpen honegatik soilik, orain arte egindakoak merezi izan du, auzoko gazteen artean lehen ez zegoen komunikazio bat lortu baita.

Baina esaten den moduan, dena ez da arrosa kolorekoa, eta egin beharreko lana ez da makala. Hasteko, oso egoera txarrean zegoen etxearen konponketa egin behar da: dena garbitu, paretak pintatu, altzairu zaharrak konpondu... Baina denen artean aurrera doaz, ilusioz gainezka, eta honez gero neska eta mutil hauen buruetan etorkizun hurbil batean egingo diren ekintzen ideiak gauzatzen ari dira, besteak beste, euskara eskolak, txalaparta jotzen ikasteko ikastaroak, zeramika tailerrak... Oraindik aurrera iniziatiba bat aurrera atera nahi duen gazte orok bere lekua du gaztetxean.

Esan bezala, momentuz lagun hauek etxearen apainketarekin ari dira lanean, baina asmoa Erromoko jaiak baino lehen gaztetxearen aurkezpena egitea da. Bai herriko jendeari eta baita kanpokoari ere gaztetxea ezagutarazi nahi diote, horretarako, gaztetxean amaituko den kalejira antolatu dute, eta ostean, jaialdi alternatiboa. ■

jan

aitor elizegi

gaminiz jatetxekoa

Pinaziz eginiko karraskariak

te-izozkiarekin eta arabar errioxako jelatinaz

ZELAN EGIN

"Teila" bat egin, laranja azaleko karraskautsa erabiliz. Pinaziekin mousse bat prestatu.

Ondoren, izozki bat egin behar da arrosazko te-infusio batekin; bestalde, bota jelatina batzuk sutan murrizten utzitako ardo beltzari.

Ondoren, milosto batzuk prestatu behar dira pinazizko karraskariekin, laranjarekin eta pinazizko moussarekin. Hornidura moduan, jar bedi izozkia ardo-jelatinaren gainean eta jarri inguruan kakao mingotsezko saltsa. ■

edan

itsaso arana, jolastoki-koa

Kata

Roda, erreserba 94

Bodega Roda SA •
Haro, Errioxa •
Jatorrizko izendapena •
Tempranillo %83, garnatxa %17 •
Alkohola: 13,5º •
Edateko: 15-18º C •

Begiari geriza kolore biziak erakusten dizkio ardo honek, erribetea morea da. Sudurrak usain alaiak ikutu erreaz lagundurik igarriko ditu. Egur garbiak eta mahats onduaren sentsazio goxoa. Ahoan mahatsa eta egurraren taninoak ezin hobeki nahastuak agertzen dira. Ahotik ederto igarotzen da; ardo zabala eta gozoa. ■

Aholkua

Etiketa: ardoaren jantzia

• ***Ardo botila baten etiketan agertu behar dena:***

— *Ardoaren jatorria, jatorrizko izendapenarekin, baldin badauka.*
— *Egilearen izena.*
— *Botilaratzen duen enpresaren izena eta helbide soziala.*
— *Botilaren edukiera.*
— *Alkohol maila.*
— *Botilaratzailearen erregistro zenbakia.*

a s t e r o s a r e a n
www.argia.com

Ama Say taldeak Xurrut aukeratu zuen euren agurrerako

lokalak

gorlizko xurrut

TESTUA: E. EZKERRA

Xurrut, rock & pizza

Zuzeneko musikarako soto jator xarmangarria

Xurrutek ateak zabaldu zituenetik urte mordoa igaro badira ere euren estiloari fidelak izaten jarraitzen dute. Ez da edonolako taberna, bereziak zaizkion funtzioez gain, pizzeria eta kontzertu emanaldiak tartekatzen dituelako. Festetan, fanzine ezberdinen aurkezpenak egiten dira, kontzertuak antolatzeko aitzakia baino ez direnak. Neguan jendea erakartzeak dakartzan zailtasunak ikusita, taberna asteburuetan soilik irekitzen da eta ostiralak dira kontzertu egunak. Udan, aldiz, egunero irekitzen ditu Xurrutek ateak.

Carlos Fernándezek beste batzuekin batera 1985ean ekin zion proiektu honi, garai hartako musika ezagutarazteko asmoz. Xurrutetik igaro dira, besteak beste, *El Inquilino Comunista, Ama Say, Cujo, Zeros, The Boom* edo *Australian Blonde* bezalako taldeak. Azken hauek, Pepsi iragarkiari esker arrakasta lortu baino lehen izan ziren Gorlizko txoko honetan. Ama Sayk azken kontzertuetako bat eskaini zuen Xurruten, taldea desegin baino lehen. Izen ezberdinak baina izaera berdintsua, tabernak rock estiloari eusten baitio beste edozeren gainetik.

Taldeak oso eroso sentitzen dira lokalean eta horrek beste taldeen bisita ekartzen du. Askok ospea lortu ostean ihesalditxoren bat egin ohi dute, beren hastapenetan jaso zituen tabernara itzultzeko, adibidez *Portobello Bones* frantziarrak. Baina taldeen kontratazio lanez Hardezan taldekideak arduratzen dira batik bat. Xurruten dute entsaialekua eta aldi berean, tabernan laguntzen dute.

Hainbat musika kritiketan, Xurrutek musika taldeek baino laudorio gehiago jaso ditu, eta batzuek tabernaren berezitasuna zinemara eraman dute. Hau irakurrita pentsa daiteke zelan litekee hori baina argitu beharra dago Gorlizko txoko hau *Bebiendo vino* film laburraren eta *Radiation* filmaren eskenatoki izan dela. Azken hau EEBBetan Robert Redford-en eskutik antolatzen den zine independienteko Sundance jaialdian aurkeztu zuten.

Hitz ugari idatz litezke taberna, pizzeria eta musika areto honi buruz baina gatxa da duen xarma deskribatzea: bere pizza goxoak aipatuko ditu gose denak, jartzen duten musika beste batek, hirugarrenak akaso, musika areto den soto ilun, txiki horretan egiten diren zuzeneko emanaldiak hobetsiko ditu. ■

BARBIRULAU 5 BOST
ALGORTA

ENEKO
BAR ameztia

AJURIA TABERNA
Andrés Cortina 2, bis
T: 4911447
ALGORTA

basurto
algorta S.L.
altzariak
telletxe 15
T: 4607162 - 4604244
48990 algorta

DOVER IDIOMAS
• IKASTARO TRINKOAK
• UDA ETA NEGUA
• GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
• UMEAK, GAZTEAK ETA HELDUAK
Juan Bautista Zabala 12, 2. ALGORTA
460 00 38
460 63 41
Ingelesa
Frantsesa
Alemaniera

HK HIREA KIROLAK
Juan Bautista Zabala 12 T: 460.62.43, 48990 ALGORTA

SAN IGNACIO Autoeskola
Baimenak:
LCC - A1 - A2 - B1 - B2 - C1
Telletxe 7 T: 460 27 99 ALGORTA
Urkiola 4 T: 430 06 05 ALGORTA
Laubide 3 T: 676 48 39 SOPELA

I
Iñaki Bitxitegia
Ω
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA
Villamonte plaza 3 T: 4302345
Algorta

URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Aldizkarietara jo ohi duzu aspaldi honetan. Zeren bila? Hori da zeuk asmatu behar duzuna. Baina entzun arretaz: aldizkarietan ez duzu aurkituko zuk nahi duzun hori, kalean baizik, egunerokotasunean.

OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Ez al zara diru gehiegi gastatzen ari? Jakizu dirua ez dela berez ugaltzen eta nekez irabazten dela. Gainera, opor egunak datoz eta diru dexente behar izaten da. Gorde ezazu benetako beharra dagoenerako.

ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Suerte handia izan dezakezu datozen egunotan. Kontua ez da espaloian bost milakoa aurkitzea. Gauza askoz garrantzitsuagoei buruz ari gara hizketan. Etorkizuna argituko duten gauzez, alegia.

AITZURRA

(Azaroak16 abenduak 20)
Zergatik sentitzen zara hain inseguru? Horrenbeste denbora itxaron duzu une hau heltzeko eta, orain zer? Ez dakizula zer egin? Noraezean zaudela? Hurrengo batean gauzak hobeto planifikatu.

HOSTOA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Loreak udan ibintza bezela, maite det dama gazte bat…, horrela dio kantak eta horrela dio zeure bihotzak ere, ezta? Dama dagoen lekuan beste edozer jar daiteke: zaldun, emakume… eta gazteren ordez ere, zahar...

EGUZKIA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Jende askok itxaropen osoz begiratzen dizu. Etorkizun handiko pertsona zara eurentzat. Ez itzazu zapuztu. Beraz, utziozu larunbat gaueko parrandak egiteari.

GARIA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Oso aukera polita diru kontuetarako, hau da, erosi, saldu, inbertitu, maileguak burutu, burtsa… denetan emaitza ezin hobeak izango dituzu. Ezin aukera hau galdu!

LASTOA

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Egiozu jaramon apur bat osasunari. Ez gara Iruñeko futbol taldeari buruz ari. Heldutasunean agertu ohi diren gaixotasunak gaztetan sortzen dira. Zaindu orain eta nagusitan eskertuko duzu.

IRATZEA

(Urriak 17 azaroak 15)
Gorde itzazu errezibоak, isunak eta antzeko paper guztiak. Beharrezkoak izango dituzu. Ez dakigu zergatik baina badirudi zeure izena desagertuko dela lagunen memoria kolektibotik. Hori ez da txarrena; erakundeek dirua eskatuko dizute.

META

(Abuztuak 18 irailak 16)
Olioz bustitako gauzak eskuen artean izatea ez da batere erraza. Zeu ere horrelakoa zara, labankor, iheskor, aingirak bezalakoa.
Ez duzu inor zure ondoan ikusi nahi.

HAZIA

(Irailak 17 urriak 16)
Gogoratzen al duzu kirola hitzaren esanahia? Ariketa fisikoa, izerdia, nekea, txandala… Noiz izan da kirola egin duzun azken eguna? Bada garaia berriro hasteko, lagun, bestela pipiak jango zaitu.

NEGUA

(Martxoak 21 apirilak 19)
Oso jarrera polita erakutsi duzu azken aste hauetan. Egunero hartzen duzu dutxa, zeure gauzak txukun eta garbi dauzkazu. Gauza bakoitza non daukazun badakizu. Primeran. Zeure burua non dagoen ere azkenik badakizu.

gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2						•		•		
3		•								•
4				•			•			
5										
6				•					•	
7	•				•		•			
8			•					•		
9						•				
10					•					

EZKER-ESKUIN
1. Bizibideak 2. Umoretsua. Oxigenoa. Jainko egiptiarra 3. Roetgen. Gaixotasun 4. Ukazioa. Iridioa. Emakume izena 5. Tiroz erasoak 6. Ukimena. Argi izpia. Lehenengoa 7. Aurreko urtea. Potasioa. Isiltzeko 8. Indioa. Bokalak. Kanpo 9. Kemen. Ele 10 Kolore bat. Aparra

GOITIK BEHERA
1. Lasaitu. Zain (ald.) 2. 49. Lohitu 3. Mandoa. Txakurra 4. Hiru. Zero Gezurra 5. Panpina. Euskadiko Ezkerra 6. Bokala. Itsasontziaren aurrekaldea 7. Justu. Eta. Maiz 8. Bokala. Gaitz. Idi hitz elkarketan 9. Pisu gutxikoa. zabor 10. Letra izena. Afrontu

Egunkaria

Kapital gehitzea

PROIEKTUAK ERRELITATE BIHURTUKO DITUGU ELKARREKIN

☎ 902 300 223

AKZIOA: 25.000 PEZETA

sarea

alkateak erantzuten

Alkatea, bai?

Barrika, Urduliz eta Lemoizko, hau da, Uribe Kostako herri txikienetako alkateek internetez erantzuten diete herritarrei

TESTUA: J. A.



Alkate hauei galderaren bat egin nahi izanez gero, helbide hauetara jo dezakezu: ***www.gk.net/barrika, www.gk.net/urduliz, www.gk.net/lemoiz***

Ez da erraza izaten agintariei aurrez aurre gure iritziak, kexak... azaltzea; txanda eskatu behar izaten da, hilabeteak itxaron... Uribe Kostako Mankomunitate barruan dauden hiru alkatek (Urduliz, Barrika eta Lemoizkoak) arazo honi konponbidea aurkitu diote interneten. Posta elektronikoaren bitartez, zuzenean bidali diezaiekezu zure mezua. Goian aipatzen ditugun helbidera jo, ez duzu besterik egin behar. Ez dakigu erantzuten duten, guk ez dugu eta probarik egin, baina hala agintzen dute eta halaxe izango da.

Mankomunitatean Euskara Zerbitzuak ere badauka bere web orrialdea, bertan euren egitasmoen berri, hainbat link eta zure iritzia uzteko lekua topatuko dituzu. ■

Uribe Kosta Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren web orrialdea.
Helbidea: ***www.gk.net/euskera***



AITZOL DE CASTRO

IGERILARI BERTSOZALEA

"Atsegin dudana, lagunen artean bertsoak botatzea da"

Belgikan jaio, Leioan bizi eta bihotzean Lekeitio darama 28 urteko gazte honek. Leioako kiroldegiko igeriketa irakaslea da. Euskal Herriko txapelketa asko irabazi ditu eta oraindik inork ez ditu berak 1992an 50 metrotan lorturiko markak hautsi. Bertso munduan ere aritzen da Aitzol baina ez du bere burua bertsolaritzat hartzen, bertsozaletzat baizik.

Zuk Ekonomikak ikasi duzu. Nolatan ba, igeriketa irakaslea?
Egia esan karrera bukatu nuenean nik neuzkan ideiak ez ziren aurrera atera. Kontua da, zer eskaintzen dizun lan munduak. Udalak lanpostu hau atera zuenean aukera aprobetxatu nuen, izan ere, igeriketa beti izan da nire hobbya, nire mundua. Karrera hor daukat, etorkizunean batek daki, ez naiz hemen betiko egongo ezta?

Nortzuk entrenatzen dituzu?
Haurrak eta helduak. Lehenengoak ikastaroetara datoz batez ere, sasoi onean egoteko, igeriketa atsegin dutelako, baina hemen ez da entrenatzen lehiaketetan parte hartzeko beste. Ez dago lehiaketa talderik. Nik entrenatzen nuena askoz ere gehiago zen. Helduak berriz, igeriketa ikastera datoz. Haurrekin konpontzea erraza da baina nagusiekin askoz errazagoa, harreman pertsonala sortzen da haien eta nire artean, oso giro polita sortzen da.

Zaila izan behar du igeriketa irakasteak ezer ez dakien pertsona bati...
Bai zaila da, batez ere helduei irakastea. Zailena beldurra kentzea da, beldur handiarekin etortzen dira. Nik esaten diet "mojojoiak" diruditela, hormara erabat itsatsita egoten direlako. Lasai ibiltzeko gomendatzen diet, 50 edo 60 urtetan egin ez dutena ez dezatela pentsa hilabetean lortuko dutenik. Gazteek, aldiz, ez dute arazorik, ikastaro bat nahikoa dute igeri egiten ikasteko. Pozgarria da benetan hutsetik hasi den pertsona bat bera bakarrik igerilekutik ikustea. Hori da lanbide honetan gehien gustatzen zaidana.

Zu igerilari ona zara. Zenbat txapelketa irabazi dituzu?
Bederatzi urterekin hasi nintzen Landatxuetan. Euskal Herriko txapelketa asko irabazi ditut baina zehatz-mehatz zenbat ez dakit..., asko. Euskal Herriko errekorrak ere baditut, oraindik inork gainditu ez dituenak. 1992an igerileku laburrean, crol estiloan, 50 metro 23:09 egin nuen eta luzean 24:13. Estatukoetan 5. tokia lortu nuen behin. Marka hauekin oso pozik nago, estatuko beste igerilarien aldean gutxi entrenatzen nuen, baina nork bere mugak jarri behar ditu. Nik horiek jarri nituen eta oso gustura gainera.

Kirolari oso loturik zaude orduan baina baita bertso munduari ere...
Nik bertsolaritzarako zaletasuna betidanik eduki dut, aititek etxean bertsoak botatzen zituen. Lehen igeriketarekin ez nuen denborarik baina entrenatzeari utzi ahala beste mundu honetan sartuz joan nintzen. Duela bost urte Algortako Bertsolari Eskolan hasi nintzen. Ez naiz ona, gainera ez nuke nahi astebururo bertso saioetan parte hartu nahi. Nik atsegin dudana lagunen artean bertsoak botatzea da, afaritan edo ekitaldi jakin batzuetan. Nire helburua ez da txapelketetan parte hartzea, ezta bertso mundu horretan buru-belarri sartuta egon ere. Nik ondo pasatu nahi dut baina hori bai, laguntza behar denean edozer antolatzeko prest nago.

Haurrekin ere ibili zahar bertso klaseak ematen...
Gustukoen dudana umeei irakastea da. Altzaga eta Betiko ikastoletako haurrei bertso klaseak eman dizkiet, egun ezinezkoa dut lana dela eta. Oso esperientzia polita da. Imajinazio handia behar da, jokoak asmatu behar dira asper ez daitezen, beti ere oreka bilatzen.

Bertsolari onen bat aterako al zaigu Leioan?
Orain Betikon talde bat sortu da eta seguru asko bertatik Leioan bertsolari onen bat aterako zaigu. Guraso askok galdetzen zidaten ea bere seme-alaba bertsolari ona izango zen ala ez, baina nire ustez kontua ez da hori, kontua da haurrak bertsoarekin gozatzea. Gero bertso onak egiten baditu hobeto, eta onak ez badira ere, oso ondo. Leioan pausuak ematen ari dira bertsolaritza munduan eta pozik nago. ■

TESTUA: ZALOA MENDEZ / ARGAZKIA: MIKEL M.



atzera begira

ZALOA MENDEZ

ENE BADA FANFARRIA, 1976

Duela aste gutxi, San Juan jaietan, Leioa kuadrilaz gainezka egon zen. Ohitura hori aspaldikoa da. Goiko argazkia 1976. urtekoa dugu. Bertan, Ene Bada fanfarriako kide batzuk agertzen dira. 17 eta 19 urte bitarteko hogei gazte leioarrek osatzen zuten koadrila hura. Bonboa, platiloak eta eurak egindako musika tresnak erabiltzen zituzten San Juan, Ondiz eta Udondoko jaiak alaitzeko. Argazkia atera zen unean, Ene Badako lagunek Ondizko igoera prestatzen ari ziren.

MVNGIA
OKINDEGIA

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076
ALGORTA

ez ahaztu!
bete zure harpidetza

Astero Euskaraz Bizitzeko

KONPROMEZUAREN KOLOREAK DITUGU

(Ezagutzen gaituzu?)

ARGIA **jaso nahi dut astero**

HARPIDETZA SARIAK (BEZa barne): Hego Euskal Herria: 15.000 pta • Ipar Euskal Herria: 717 libera • Espainia: 15.000 pta • Beste Atzerriak: 19.300 pta • Airez: 30.225 pta

Markatu x batez zure aukera: ❑ **Hilabetez dohainik jaso nahi dut ARGIA berria ezagutzeko**
❑ **Urte osoko harpidetza egin nahi dut. (CD bat opari jasoko duzu)**

Izena:.....1. deitura .....2. deitura:.....
N.A.F./N.I.F.:.....Helbidea: .....
Posta kodea: .....Herria:.....Herrialdea: .....Tel./Faxa:.....

SOILIK URTE OSOKO HARPIDETZA ESKATU DUENAK BETETZEKO:

Ordainketa mota (markatu x batez): Bankuz ❑ Transferentziaz ARGIAren kontura ❑
(Bankuz ordaintzekoak betetzeko soilik)
Banku edo aurrezki kutxa: .....Titularra:.....
Titularraren telefonoa.....Titularraren helbidea:.....

Entitatea ❑❑❑❑ Sukurtsala ❑❑❑❑ K.D ❑❑ Kontu zenbakia ❑❑❑❑❑❑❑❑❑❑

DATA: ***SINADURA:***

Harpidetza-orri hau bete eta bidali helbide honetara:
ARGIA, Harpidetza Saila: Zirkuitu Ibilbidea, 15. pabil. 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) • Tel.: 943 37 15 45 • FAXA: 943 36 10 48 • posta-e: harpide@argia.com • www.argia.com
ARGIAk zure datuak gure arteko harremanetarako soilik erabiliko dituela bermatzen du.

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEHIAGO ESKAINTZEN DUENIK